

Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Jone Zumalde Elortza


Helbidea: Zubibarri kalea, 1-3.esk. **Herria:** Oñati

NA zk.: 11568467A

Atzo arratsaldean gure auzoko lorategiak hondatu zituen motor txiki batek. Ez da lehenengo aldia hori gertatzen dena. Izan ere, hainbat gazte ibiltzen da motorrean gure auzoan, orain espaloï gainean orain lorategietan. Udalak, ostera, ez du oraindik inolako neurririk hartu. Tamalgarria litzateke egun batean motor horiek haur bat harrapatuko balute. Hortaz, bada, gure auzo-
ra udaltzainak bidaltzeko eskatzen dizut.

Oñatin, 2002ko uztailaren 8an

Izp.: 



1

2

3

Idatzi honen bidez adierazi nahi dizuet lotsagarria dela Santa Barbara parkeko egoera, zikin-zikin dago eta. Izan ere, zakarrontzirik ere ez dago. Parke osoan –eta parkea handia da– lau bat zakarrontzi baino ez dagoenez, haurrekin jolastera joaten garen gurasook ez dugu zaborra nora bota.

Arrasaten, 2002ko otsailaren 7an

Izp.: 

Idatzi honen bidez salatu nahi dut Dorleta auzoko erreka ondoko pasealekuaren egoera. Izan ere, pasealekuko horretako esku baranda apurtuta dago hainbat tokitan eta arriskua dago jendea errekarara jausteko. Kontuan izan pasealeku horretan adineko jende asko ibiltzen dela. Haurrak ere ibiltzen dira. Hortaz, bada, ahalik eta azkarren konpontzea komeni dela uste dut, ezer txarrik gertatu aurretik.

Eskoriatzan, 2002ko irailaren 19an

Izp.: 